

TITULITISA ETA LANGABEZIA

F. krutwig Sagredo

Gaur egunean mundu zabalean nabari zaikun gazteen langabezia-
ren ithurburuen ikhertzapenak egitea berez gauza beharrezkoa lizateke,
berhain gure egunetako alderdi politikoek elezkinoetan butzen irabaz-
tekotz duten beldurrez, gauzake ez dira ikhertzen, alderdi politikoek
egia nolakoa den ikhusten dutenagatik, baldin eta egia hunek butzen
galtzeko arriskua representatzen badu ixiltzen dira. Eta halarik ere
egiak egia dira, eta faktuak hor gure begien aintzinean ditugu: gazteen
langabezia. Noren kulpaa? erraz erran liteke gazteen belhaunaldi baten
auherkeria ta “revoluzionitisa” izan da. Orain gora behera hamabortz
urthe duela gazte auherrek ixtidiatu beharrean grebak egiten beren
ikastaroa pasatu dute, eta nola jakintza ezein ere unhil baten bidez bu-
ruan sartzen ez bait da, baizik eta egunoroko ixtudiaren bidez beren
Universitateen beren ikastaroa laur urtheez pasatuaz geroz, Unibersita-
teetan eta bertze ikas-zentruetan ere hamaitu zenean kanpora joan ziren
sartu ziren bezain ignorant...bainan heien buruetarat ezein ere Urzo
Gorrik, revoluzionarien zerutik jakintza ekharten ez bait zerauen...be-
hintzat “titulu” bat eduki nahi zuten. Hunela beren kultur revoluzione
osoa bethi zetzan titulu baten ardiestekotz egiten zituzten ixtudien gre-
beetan, huntara Unibersitatezko zentru batzuetan ixtudiant **progressis-
tek** (?) eskatzen auten, ezen urthearen hamaieran egiten ziren
examinak khendu behar zirela; geroz, hau nahikoa ez bait zen, ezen
urthe osoa eduki ukhan zituzten noten bidea nahikoa zela; eta geroa-
goz, ezen urthe bateko nota hauietan bethi beren tituluetan lortu zuten
nota goikoena eta hoberena signifikatu behar zela. Eta nola revoltosoak
bait ziren, halatan ere hunelako mostrukeriaren aintzinean makhurtzen

ez ziren professoreak batzuetan personalki eta fisikoki attakatu zituzten. Eta baldin eta statuaren botherean ere regimen politiko progresista bat ba zegoen, autoritateek amor eman behar bait zuten revoltosenek eskatzen zutena lortu zuten. Baina konquista hauien bidez ez zen beren buruetan jakintza sartzen, zeren eta Urzo gorriñoak jakintza beren buruetan sartzen ez bait zuen.

Huntara baldin eta epokha batetan, titulu bat eginikako ixtudientzako khoroa ba zen, aurrerantzean gaztaro berri ta iraultzaileetan bertze gauza bat gerthatzen zen...orain bai ba zuten khoroa... baina khoroa sostengatzeko beharrezkoa zen bururik ez...eta hunela khoroa ere ez zen urrhezkoa... baizik eta txatarrezkoa. Ixtudioak "demokratizatu" zituzten, hau da: aphaltu eta desvaloratu... eta beren tituluak papertxo zathar bat bilhakatu zen, eta hunela beren "revoluzionitisa"... revolta stupidoa, gizarte stupido baten ondorioa bilhakatuda... eta orain hor dagotza: titulu ba dute, valiogabeko titulu txatar bat... baina ez dute jakintzarik...eta hunelatan langabezian dagotza Ai lezate ikas orain sortzen den gazteria berriak...beren anaie zaharren ezperientzian!